

AITAREKIN JOLASEAN

Eugène Ionesco

Dramaturgia: Pep Anton Gomez
Itzulpena: Ritxi Lizartza

PERTSONAIAK:

Leire

Aita

Okina

Harakina

Txarkuteroa

Botikaria

Ama

Ate zaindaria

Amona Kattalin

Kattalin panpina

Neskatoa

(Argiak pizten direnean, ohe baten burukoaren atzealdea ikusten dugu eszenan. Ohe izugarria da. burukoan ate bat dago margoturik. Leire agertzen da).

LEIRE: Kaixo, nere izena Leire da, ni Leire naiz. Zazpi urte ditut eta istorio bat kontatu nahi dizuet. Oso istorio atsegina da. Benetakoa da, orain urte batzuk gertatu zen. Ni jaio baino lehen. Kontatuko dizuet nere gurasoei gertatu zitzaiena ni jaio nintzen gauean. Bere lehen alaba naiz. Oso kontentu zeuden, eta oso urduri: oso gutxi falta zen eta ni ezagutzeko gogo izugarria zuten. Gaueko hamarrak dira eta hau nere gurasoen gelako atea da. Oheratzeko garaia da. (**Aita sartzen da**). Hau nere aita da.

AITA: Maitea... etorriko zara ohera?

(Ama sartzen da, haurdun, bokata bat eskuetan)

LEIRE: Eta hau nere ama.

AITA: Utziko al diozu behingoz jateari?

AMA: Gose naiz!

AITA: Nahikoa da!

(Aitak bokata hartu eta atera egiten da. Ama bakarrik geratzen da. Ohean ezkutatuta zuen beste bokata bat hartuko du)

LEIRE: Nik izugarri maite dut aita, lotara joan aurretik ipuinak kontatzen dizkit eta ohean gaixo nagoenean ere bai, eta oso jolas atseginak asmatzen ditu. Nere ama ere izugarri maite dut, nitaz asko kezkatzen delako eta beti abesti ederrak kantatzen dizkidalako.

(Aita sartzen da. Amak instantean ezkututzen du bokata)

AITA: Tira, lotara. Gabon, maitea.

AMA: Gabon, laztana.

LEIRE: Beraz, ezagutzen dituzue nere gurasoak.

AITA: (**Amari tripan emango dio musu**) Gabon, Leire.

LEIRE: Eta hori naiz ni. (**Gurasoak ohean sartzen dira**) Lehen esan dizuet, kontatuko dizuedana ni jaio aurretik gertatu zen. Gau hartan nere aita segituan geratu zen lo. Oso nekatuta zegoen egun osoan lanean aritu zelako eta gau osoa ametsetan eman zuen. Nirekin egin zuen amets. Oso amets politak izan ziren. Amets egin zuen ipuinak kontatzen zizkidala, elkarrekin jolasten genuela, hegazkinez bidaia egiten genuela... Baina hasieratik kontatuko dizuet. Nere aitak amets egin du ni aspaldi jaio naizela, lau urte ditudala eta, goizero bezala, nere panpina hartu eta gurasoen gelara joan naizela aita eta ama esnatzera. Begira, hauxe da nere aitaren ametsa.

(Ohea buelta ematen hasten da. Ohean gurasoak daude lotan. Leire barrutik oihuka entzungo dugu)

LEIRE: Aitatxo!... Amatxo!... Aitatxo!... Amatxo!

AITA: Zein ari da garrasika garai ordu honetan?

AMA: Leire, lotara!

LEIRE: Aitatxo!... Amatxo!...

AITA: Baina Leire, ez al duzu ikusten aitatxo...

AMA: ...eta amatxo...

AITA: oso nekatuta daudela?

AMA: Bart aitaxo eta amatxo antzerkia ikustera joan ziren.

AITA: Antzerkitik jatetxera.

AMA: Jatetxetik zinemara.

AITA: Zinematik berriz ere jatetxera.

AMA: Jatetxetik txotxongilo ikustera.

AITA: Eta orain aitaxok eta amatxok lo egiteko gogoia dute. Beraz, etzazu oihurik egin.

LEIRE: (*Panpina eskuetan duela sartzen da*) Aitaxo!... Amatxo!

GURASOAK: Oh!

(*Amona Kattalin sartzen da, gurasoen gosaria gurpildun kotxe batean ekarri du*).

AMONA: Zer...? Goizero bezala, aitaxo eta amatxo esnatzera etorri zara? Leire, oso neska bihurria zara.

(*Amona gurpildun kotxearekin sartzen da logelan. Bandeja gurasoen belaunetan jartzen du. Ondoren, gosaria zerbitzen hasten zaie. Leire inork ikusterik ez duen leku batean ezkututzen da*)

AMONA: Egun on, Antton. Egun on, Miren. Tira, jaiki, bada garaia eta. Eta ez dizuet gosaria berriro ohera ekarriko, entzun? Hemen duzue egunkaria, hemen dituzue eskutitzak, hemen kafesnea, bi azukre koskorrekin; hemen laranja ura, hemen kruasanak, hemen tostadak, hemen gurina, hemen mermelada melokotoizkoa, hemen marrubizkoa, hemen arrautza frijituak, hemen urdaiazpikoa, hemen...

(*Leire ezkutalekutik ateratzen da*)

LEIRE: (*Oihuka*) Zuen alabatxoa.

(*Leire ziztu bizian sartuko da ohean, aita eta amaren artean*)

AMA: A ze betekada!

AITA: Ni ere bete-beteta nago (*Amonari*) Atzo, txotxongiloa bukatu eta gero jatetxera bueltatu ginen.

(*Amak berriz ere ematen dio amonari banan-banan, gosariaren jaki guztiak. Amonak gurpildun kotxean jarriko ditu*)

AMA: Gurasoek ez dute nahi...

AITA: kafesnerik,

AMA: ez dute nahi...

AITA: tostadarik,

AMA: ez dute nahi...

AITA: kruasanik,

AMA: ez dute nahi...

AITA: urdaiazpikorik,

AMA: ez dute nahi arrautza...

AITA: frijiturik,

AMA: ez dute nahi mermelada...

AITA: melokotoizkoa,

AMA: ez dute nahi...

AITA: laranja-urik,

AMA: ez dute nahi mermelada...

AITA: marrubizkoa,

AMA: Hala ere, ez zen marrubizkoa, melokotoizkoa baizik.

AMA: Leiretxok jan dezala dena; eta amaitzen duenean, nahi badu, etor dadila hona.

(Leirek ez du ohetik atera nahi. Izara artean ezkututzen da, negar malkoka eta oihuka. Amona Kattalin ohera sartzer behartuta dago eta izara artean sartzen da Leire harrapatzeko. Jolasa gertatu bitartean, aita eta ama loak hartuta geratuko dira. Azkenik amonak Leire harrapatu eta gurpildun kotxean eseriko du. Sukalderantz abiatzen dira)

LEIRE: Gurasoengana joan nahi dut! Gurasoengana joan nahi dut!

AMA: Ai! Orain pena ematen dit!

AITA: Ez kezkatu. Oso tripontzia denez, hor egongo da, zure melokotoi-mermelada jaten.

AMA: Eta zure marrubi-mermelada.

AITA: Eta zure kruasanak.

AMA: Bai, hor egongo da, zure laranja-ura edaten.

AITA: Eta zure kafesnea.

AMA: (*Amonari*) Amona, Leiretxok ez dezala kafesnerik hartu!!

AMONA: (*Leireri*) Baina, baina... Ze tripontzia zaren... tripatxoa begiak bezain potzolo eta borobila duzu. Begira ume, ez dut nahi zu gaixotzerik; horregatik neronek hartuko dut aitaxoren eta amatxoren kafesnea.

LEIRE: Eta laranja-ura.

AMONA: Eta kruasanak.

LEIRE: Eta tostadak.

AMONA: Eta melokotoi-mermelada.

LEIRE: Eta marrubizkoa.

AMONA: Eta arrautza frijituak.

LEIRE: Eta urdaiazpikoa.

AMONA: Eta bart gauean jan gabe geratu zen arrozesa.

AITA: Ah, hau lasaitasuna!

AMA: Ah, hau lasaitasuna!

AITA: Uste dut berriz ere lotara noala.

AMA: Bai, egintzazu lo, baina zurrungarik ez, laztana.

AITA: Nik ez dut zurrunga egiten, maitea.

AMA: Bai, zurrunga egiten duzu, laztana.

AITA: Ez dudala zurrunga egiten, maitea.

(Bapatean Leire zotinka hasten da)

LEIRE: Hip!... Hip!

AITA, AMA ETA AMONA: Hasi gara berriz ere!!

(Amona keinu barregarriak egiten hasten da Leireri sustoa eman eta zotina kentzeko. Porrot egiten du. Leire gurpildun kotxearen gainean jarri eta gurasoen gelara itzuliko da. Gurasoak izara ar tean ezkutatu dira)

AMONA: Nahikoa da! Tira, goazen aitatxo eta amatxorengana, mugi!

LEIRE: Aitatxo, ...hip! Amona Kattalin ... hip! **(Amonak umea logelan utzi eta alde egingo du)**
Aitatxo, ...hip!

AITA: Zer?

LEIRE: Aitatxo, ...hip!

AITA: Zer?

LEIRE: Amona Kattalinekin zure urdaiazpikoa jan du... hip!

AITA: Ez du axola.

LEIRE: Hip! ...Eta zure arrautza frijituak ...hip!

AITA: Ez du axola.

LEIRE: Hip! ...Eta zure kafesnea hartu du ...hip!

AITA: Ez du axola.

LEIRE: Hip! ...Eta bart gauean jan gabe geratu zen arrozesa ...hip!

AITA: Ez du...

LEIRE: Eta...

AITA: (Oihuka) Leire, nahikoa da! **(Leire eta ama izutu egin dira. Leireri zotina joan zaio)**

AITA: Hara, zotina joan zaio.

AMA: Laztana, izutu egin nauzu.

(Aitxa eta abaila bizian ateratzen da).

AITA: Nora zoaz?

LEIRE: Aitatxo, kontaidazu ipuin bat.

(Ama berriz ere agertzen da)

AMA: Jantzi egingo naiz erosketetara joateko (**ateraz**).

AITA: Garai honetan?

LEIRE: Aitatxo, kontaidazu ipuin bat.

AMA: (*Itzuliz*) Bai, garai honetan. Eta kontaiozu ipuin bat (**Ateraz**).

LEIRE: Kontaidazu ipuin bat.

AITA: Ipuin bat?

LEIRE: Bai, ipuin bat.

AITA: Ea ba... Bazen behin neskato txiki bat. Ba al dakizu ze izen zuen? (**Ohearen burukoaren atzean Leireren panpina agertuko da**)

PANPINA: Kattalin.

LEIRE: Amona Kattalin bezala?

AITA: Bai, baina ez zen amona Kattalin. Kattalin neskato txikia zen. Bere amaren izena zen...

PANPINA: Kattalin.

AITA: Kattalin txikiaren aitaren izena zen...

PANPINA: Kattalin.

AITA: (**Aita haserretzen hasi da**) Kattalin txikiak bi ahizpa zituen eta ahizpen izena...

PANPINA: Kattalin.

AITA: Eta bi lehengusu, beren izena...

PANPINA: Kattalin.

AITA: (**Gero eta haserreago**) Eta bi lehengusina...

PANPINA: Kattalin eta Kattalin.

AITA: Eta osaba-izebak,

PANPINA: Osaba Kattalin eta izeba Kattalin.

AITA: Osaba...

PANPINA: ...Kattalin...

AITA: Eta izeba...

PANPINA: ...Kattalin...

AITA: Alabatxo txikia zuten,

PANPINA: Kattalin.

AITA: (**Gero eta azkarrago eta gero eta haserreago**) Eta alabak hainbat panpina zituen, hiru

panpina, eta beren izenak...

PANPINA: Kattalin, Kattalin eta Kattalin.

AITA: Eta seme txikiak bazuen lagun txiki bat...

PANPINA: Kattalin.

AITA: Eta trapuzko hartz txikia...

PANPINA: Kattalin.

AITA: Egun batean...

PANPINA: Kattalin txikia, Kattalin aitaxorekin, Kattalin nebatxoarekin eta Kattalin amatxorekin parkera joan zen paseatzera. Han topo egin zuten beren lagunekin, Kattalin jaun-andreak, Kattalin seme-alabak, Kattalin trapuzko hartz txikia eta Kattalin, Kattalin eta Kattalin panpinekin.

(Panpinak hau guztia kontatzen duen bitartean, Kattalin izena aipatzen duen bakoitzean zerura botatzen du panpin bat. Leire alde batetik bestera dabil, barre eta oihu artean, ero moduan, panpinak jasotzen. Aitak une horretan panpinari bultzada eman eta ohearen burukoaren atzean desagertarazten du)

AITA: Eta inork ez daki nola, baina Kattalin panpina sekula santarako desagertu egin zen.

LEIRE: Oh!

(Ama sartzen da, Leireri soineko arrosa eramanez)

AMA: A ze iskanbila! Zer gertatzen ari da hemen?

LEIRE: Begira ze panpina pila!

AMA: Hara, ze politak.

AITA: Ezer ez, ipuin bat kontatzen ari nintzen.

AMA: Tira, zatoz, jutzen lagunduko dizut.

LEIRE: Kalera goaz?

AMA: Bai.

LEIRE: Azokara?

AMA: Bai.

LEIRE: Gauzak erostera?

AMA: Bai.

LEIRE: lupiiiiiiiiiiiiiiii....

AMA: Leire, egon zaitez geldi!!

(Ama Leireri janzten laguntzen hasi zaio. Bitartean...)

LEIRE: Aita, kontaidazu beste ipuin bat.

AITA: Beste bat? Konforme. Ea ba... Bazen behin markesa bat. Bere izena...

(Ohearen burukoaren atzetik Kattalin panpina agertzen da, markesaz jantzita)

PANPINA: Kattalin.

AITA: Oh, ez!!!

(Aitak Kattalin panpinari kolpe bat ematen dio burkoaz. Panpina desagertu egingo da)

AITA: Eta hala ez bazan, sar dadila kalabazan...

AMA: Tira, eman musu aitari eta goazen erosketak egitera.

LEIRE: Agur, aitatxo. Erosketak egitera goaz.

AITA: Agur txikia, txintxo izan.

LEIRE: Txintxoa izango naiz.

AMA: Agur, laztana (**Biak Ateraz**)

AITA: Agur maitea. Aukera ederra lo-kuluxka egiteko. Uffff! Guztiz nekatuta nago! Noski, ez da harritzekoa. Atzo jatetxera joan nintzen, jatetxetik antzerkia ikustera, antzerkitik berriz ere jatetxera, jatetxetik txotxongiloa ikustera, ondoren berriz ere jatetxera... Eta ezin dut gehiago. Baina ez du axola. Atea itxiko dut eta inork ez dit traba egingo.

(Ohea buelta ematen hasten da, atea margoturik daukan burukoa ikusleei begira geratu arte. Atea ireki eta panel bat agertzen da, denda mordoa -okindegia, harategia, txarkuteria eta botika bat- margoturik duela. Leire eta bere ama dendan sartzen dira. Neskato bat dago)

LEIRE: Denda honetan sartuko gara?

AMA: Bai.

LEIRE: Begira, neska txiki bat dago (**hurbildu egiten zaio**) Kaixo, nirekin jolastu nahi duzu? Zein da zure izena?

NESKATOA: Kattalin.

LEIRE: Badakit. Zu markesa zara. Zure aitaren izena Kattalin da, zure amarena Kattalin da. Zure nebatxoa ere Kattalin da. Zure aitonaren izena Kattalin da, zure panpinen izena Kattalin da, zure etxearen izena Kattalin da.

(Neskatoak izuturik ihes egiten du panelaren atzealdera)

NESKATOA: Amatxo!!!

(Atzetik okina agertzen da)

OKINA: Zer gertatu da?

AMA: Ezer ez, lasai. Bere aitaren errua da. Jakingo bazenu ze gauzak kontatzen dizkion... Egun on, okin jauna. Hiru arkume-kostila, txahal-xerra eta txerri-txuletak nahi nituzke...

OKINA: Oker zaude andrea, haragia ez da okindegian erosten, harategian baizik. Kalearen bukaeran dago. Autobusez joan zaitezke, hala nahi baduzu (**Desagertu egiten da**)

AMA: Ez, nahiago dut oinez joan (**Harakina agertzen da bere dendan**). Egun on, harakin jauna. Hirurehun gramo urdaiazpiko eta berrehun gramo mortadela nahi nituzke.

HARAKINA: Sentitzen dut baina ez daukat zuk eskatutakorik. Urdaiazpikoa eta mortadela txarkuterian erosten dira. (**Desagertu egiten da**).

AMA: (**Bere dendan agertzen den txarkuteroari**) Egun on, txarkutero jauna. Kilo erdi azukre eta gatza nahi nituzke.

TXARKUTEROA: Andrea, oker adierazi dizutela uste dut. Hori guztia janaridendan aurkituko duzu. (**Desagertu egiten da**).

AMA: (**Agertu berria den botikariari**) Egun on, zu janaridendako nagusia zara. Ba al duzu aspirinarik?

BOTIKARIA: Bai, badut.

AMA: Ezin dut sinestu, harri eta zur utzi nauzu.

BOTIKARIA: Normala da, ez naiz janaridendako nagusia, botikaria naiz.

AMA: Oh!

(Eszena ilunpean geratzen da. Panela ixten ari da eta amatzerakoan ohearen burukoa ikusten dugu berriz ere eta ohea bera bueltaka ari da. Argitasuna. Berriz ere ikusten ditugu aita lotan eta ama bokata amaitzen. Leire sartu eta albo batean geratzen da).

LEIRE: Hau izan da nere aitaren ametsa eta bitartean ama bokata jaten aritu da. Bukatu duenean, amak aita esnatu du.

AMA: Laztana... (berriz ere ekinean) Laztana, esnatu... (berriz ere ekinean) Esnatzeko!

AITA: Eh? Eh? Bai... tira... Zer gertatzen da? Badator?

AMA: Gose naiz.

AITA: Zer?

AMA: Gose naizela.

AITA: Baina...

AMA: Prestatuko al dizkidazu marrubiak natarekin, laztantxo...?

AITA: Ezin dut sinestu.

AMA: Mesedez!

AITA: *(Ateratzen den bitartean)*

LEIRE: Hori dela eta, aita altxa eta sukaldera joan da; marrubiak, nata pixka bat eta azukrea hartu eta amari marrubiak natarekin prestatu dizkio *(Aita sartzen da, plater bat eta tenedore batekin).*

Ondoren ohera itzuli da, marrubiz eta nataz betetako platera eta tenedorea amari eman eta...

AMA: Eskerrik asko, laztana.

LEIRE: Berriz ere oheratu egin da; begiak itxi eta lo geratu da. Une bat igaro eta ametsetan berriz ere, hauxe da bere ametsa... *(Ateraz)*

(Beltzera. Instantean barrutik Leire entzuten dugu. Argitasuna. Aita bakarrik dago, lotan).

LEIRE: *(Sartuz, panpina eskuetan duela)* Aitatxo! Amatxo!

(Albo batetik ama sartzen da, oraindik kamisoia jantzita)

AMA: Egun on, Leire. Esnatuta al zaude?

LEIRE: Bai.

AMA: Ba gaur amatxok irabazi egin dizu. Aitatxo esnatuko dugu?

LEIRE: Bai! Aitatxo, aitatxo... Esnatu behingoz!!!

AMA: Tira, loti, esnatu, garaia da eta.

AITA: Oraindik ez.

AMA: Nola ez ba! Ez izan alferra. Nik bezala egin izan bazenu... Bart gauean oso goiz oheratu nintzen eta bikain egin dut lo.

AITA: Ba nik ez dut ondo lo egin, atzo bakarrik joan nintzelako jatetxera, ondoren zinemara, ondoren berriz ere jatetxera, ondoren txotxongilo ikustera, ondoren berriz ere jatetxera eta nirekin etorri ez zinez, aukera bikaina izan nuen txorizoa jan eta garagardoa edateko...

AMA: Eta beste gauza asko; nik ez dut nahi zuk horrelakoak jaterik osasunari kalte egiten diotelako. Ez al da egia? Eta orain, ez da harrizkoa, tripako minez eta buruko minez; gusturago egongo zinen lotan. Nagi hori... Ohean geratu nahi duzu, ezta? Tira... Jaiki zaitez behingoz. (**Ateraz**).

AITA: Ez. Gaur igandea da eta igandetan ez dut lanera joan beharrik, eta ez dugu inora joan behar asteburua pasatzera: negua da eta errepideak izoztuta daude.

AMONA: Errepideak izoztuta daude, bai... Irratian esan dute. Baina Donostian ez. Donostian eguraldi ona egiten du. Etxeen gainean lainoak daude, baina Bulebarreko zuhaitzen gainean zerua urdin-urdina dago. (**Ateraz**)

(Leirek kilimak egiten dizkio aitari sudurrean. Ondoren musu ematen dio)

AITA: Zer egiten du sagutxo honek nere ohean?

LEIRE: Ez naiz sagutxo bat, zure alaba naiz. Kontaidazu ipuin bat.

AITA: Aita lotan dago.

LEIRE: Kontaidazu ipuin bat (**Aita zurrunga ari da**). Aitatxo!

AITA: Ondo da, ondo da! Ea ba... Hegazkinean joango gara (**Alaba jantzeko imintzioa egiten du**) Galtzerdiak jantziko ditugu... Eta...

LEIRE: Kuleroak.

AITA: Gona jarriko dugu. Jertse arrosa jantziko dugu.

LEIRE: Ez! Hori ez!

AITA: Orduan hau, zuria.

LEIRE: Zuria, bai, zuria.

AITA: Jertse zuria jantziko dugu. Orain berokitxo jantziko dugu, eskularruak... Ah, botak ahaztu ditugu. Txanotxo jantziko dugu. Jaiki, jantzi, zuri eskutik heldu eta orain ikusiko duzu...

(Ama sartzen da, eskuan poltsa duela, kaleratzeko prest)

AMA: Nora doaz nere umeak?

LEIRE: Aitarekin noa, hegazkinean ibiltzera.

AMA: Ondo pasa. Kontuz ibili eta zuhurrak izan. Hegazkinez bazoazte, ez utzi Leireri burua leihotik ateratzen. Arriskutsua da. Ibaira eror daiteke... edo auzokoaren teilatura. Eta orduan min hartuko du ipurditxoan edo kaskarrekoa kopetan (**Ateraz**).

AITA: Agur, amatxo.

LEIRE: Agur, amatxo.

AITA: Orain sukaldera joango gara. Zuk esan nondik.

(Leire arrekonkon jartzen da aitaren gainean)

LEIRE: Zuzen. Orain ezkerrera. Segi zuzen. Eman buelta. Geldi. Orain berriro zuzen. Orain mantoago. Orain azkarrago. Ezkerrera. Eskuinera. Zuzen. Orain atzera. Geldi. Ez gelditu. Berriz ere ezkerrera eta... eta iritsi gara.

(Albo batetik amona sartzen da)

AITA: Begira, Amona Kattalin etorri da. Bazkaria prestatzen ari da.

LEIRE: Agur, amona. Hegazkinean ibiltzera goaz.

AMONA: Antton, seme, kontuz ibili umearekin han goian. Ez egin erokeriarik. Ez utzi Leireri burua leihotik ateratzen. Erori egin daiteke. Auzokoaren teilatuan kolpea har dezake.

edo kopetan kaskarreko bat. Edo kuleroak adar batean kateatu eta zuhaitz batean zintzilik gera daiteke eta eskilara batez lagundu beharko genioke. (**Ateraz**)

LEIRE: Lasai, kontuz ibiliko naiz.

AITA: Orain giltza hartu, eta sartuko dut sarrailaren...

LEIRE: begian.

AITA: Atea irekiko dut. Atea itxiko dut. Ez dut atekadarik joko. Atea poliki-poliki itxiko dut. igogailura goaz (**Ohea era bertikalean jartzen du, koltxoia ikusleei begira. Ohearen burukoaren gainean igotzen dira**). Zurekin sartuko naiz igogailuan. Orain botoia sakatuko dut.

LEIRE: Ez, nik sakatuko dut. Altxa nazazu, txikia naiz eta.

AITA: Nik zu besoetan hartu. Zuk botoia sakatu eta igogailua badoa beheara. Lehenik eta behin kalera jaitsi behar dugu, ondoren hegazkinean askoz ere gorago igotzeko. Beheko solairura iritsi gara. Igogailutik atera eta porteria aurrean zein ikusiko?

(Ate zaindaria sartzen da, erratza eskuan)

ATE ZAINDARIA: Ate zaindaria, eskobatzen.

LEIRE: Egun on, atezaindari anderea.

ATE ZAINDARIA: Egun on, jauna. Egun on, moñoña. Oh, zein politta zauden gaur goizean...! Beroki txiki eder hori, zapata eder horiek eta eskularru eder horiek!! Oh, ze eskutxo txikiak dituzun...!

LEIRE: Eta nere txanoa?

ATE ZAINDARIA: Nora zoazte horrela jantzita? Paseatzera?

LEIRE: Hegazkinez ibiltzera.

ATE ZAINDARIA: Ui, kontuz ibili. Zaindu alaba, ez utzi burua leihotik ateratzen. Erori egin daiteke.

LEIRE: Auzokoaren teilatura erorita ipurditxoan kolpea har dezake. Edo kopetan kaskarreko handi handi bat.

AITA: Edo sudurrean

LEIRE: Badakit!

ATE ZAINDARIA: Ondo pasa! (**Ateraz**)

AITA: Hobe izango da autobusa hartzea. Kalea zeharkatuko dugu. Kontuz...

LEIRE: *Bebilekin.*

AITA: Beste kalea ere pasatuko dugu. Autobus-geltokira iritsi gara. Hemen da autobusa. Igo egingo gara.

LEIRE: Badoa...

AITA: Gelditu egin da.

LEIRE: Badoa...

AITA: Gelditu egin da.

LEIRE: Badoa.

AITA: Begira, Iratxeren ama. Harategiaren aurretik pasatzen ari gara. Hor dago harakina bere txahal buruen artean.

LEIRE: Ez dut ikusi nahi. Harakina gaiztoa da.

AITA: Bai, harakinak jarraitzen du animaliak akabatzen. Gaixoak. Nik... nik sekulakoak esango dizkiot harakinari. Kale kantoira iritsi gara eta autobusa gelditu egin da.

LEIRE: Badoa.

AITA: Ez, aireportura iritsi gara eta. Hegazkinera igo gara. Hegazkina abiatu da eta badoa, badoa, badoa gorantz. Ikusten al duzu nere eskua? BRRRRRRRRR BRRRRRRRRRRRRR?

LEIRE: Igo, igo, BRRRRRRR BRRRRRRRRRRR. Igo, igo, BRRRRRRR BRRRRRRRRRRR.

AITA: Leihotik begiratuko dugu.

LEIRE: Ez, ez, nik ez dut begiratu nahi.

AITA: Ez izan beldurrik, nik eutsiko zaitut. Begiratu behera. Kaleak ikusten dituzu? Eta gure etxea... eta auzokoarena...

LEIRE: Ez dut bere teilatura erori nahi.

AITA: Eta bulebarra, han behean... Berebilak... oso txikiak dira. Eta jendea kalean paseatzen. Oso oso txikiak dira. (**Hiriko hainbat leku bisitatuko ditu**) Begira Aquariuma, arrainez beterik dago.

LEIRE: Egun on, arraintxoak.

AITA: Marrazoa ikusi duzu. Entzuten al diozu? Nola egiten du? GRRRRRRRRRRR

LEIRE: Ez egin kasurik. Zu ez zara marrazoa, ezta? Zu aita zara. Zu ez zara marrazoa

AITA: Ez, ni ez naiz marrazoa, ni aita naiz. Baina marrazoek bezala egiten dut zuk ikusteko.

LEIRE: Ez. Ez egin berriro.

AITA: Eta orain hegazkina gora eta gora.

LEIRE: Gorago, gorago, gorago.

AITA: Eta zelaia ikusten ari gara.

LEIRE: Eta baserriak.

AITA: Bai, baserriak. Eta Miren bere baserriko ikuiluan.

LEIRE: Ahatetxoak.

AITA: Ibaia.

LEIRE: Uretan igeriketan ari diren arraintxoak. Arrainak ez dira jaten.

AITA: Ez, arrain txintxoak ez dira jan behar. Arrain gaiztoak bakarrik jan behar dira. Arrain gaiztoek arrain txintxoak jaten dituzte. Horregatik jan behar ditugu arrain txintxoak... gaiztoak esan nahi dut.

LEIRE: Txintxoak ez.

AITA: Ez, txintxoak ez. Gaiztoak bakarrik. Eta orain, begira, Susana, zure laguntzua.

LEIRE: Gaiztoa da. Joan den egun batean arropa zikindu zidan bere zapata zikinekin.

AITA: Eta orain soroa ikusiko dugu, eta orain Susanaren aita, eta orain alkate jaunaren etxea eta orain eliza, kanpandorrea eta guzti.

LEIRE: DING DONG DING DONG.

AITA: Eta orain, kanpandorrean, apaiz jauna.

LEIRE: Kontuz, erori egingo da eta!!

AITA: Ez, soka batez loturik dago. Kanpandorrera igo da musuzapiaz guri **agur!** esateko. Eta berarekin alkate jauna eta alkate jaunaren emaztea daude... eta Apaiz jaunaren emaztea.

LEIRE: Ez da egia.

AITA: Ez, ez da egia. Apaiz jaunak ez du emazterik. Eta orain gora, gora, gora... hodeien artean gaude, zerua gero eta urdinagoa da eta orain Lurra han behean ikusiko dugu, bilar-pilota bat bezalakoa da eta azkenik... Tatxan...! Ilargira iritsi gara!!! Ilargian paseatzen ari gara. Goseak gaude. Ilargi puska bat jango dugu.

LEIRE: Nik Ilargi puska bat jan dut. Oso, oso goxoa da. Eta Leirek Ilargi puska bat emango dio...

AITA: Bere aitaxori.

LEIRE: Biek Ilargia jango dute

AITA: Goxoa da. Meloia ematen du.

LEIRE: Azukre pixka bat jarriko diot.

AITA: Ez jan Ilargi osoa. Besteentzat ere pixka bat utzi behar dugu. Bah! ez du axola. Berriz haziko da, seguru. Orain hegazkinera itzuli behar dugu. Oraindik ere gorago, askoz ere gorago igoko gara. Gora, gora...

LEIRE: Gora, gora...

AITA: Eguzkira iritsi gara. Eguzkian paseatuko dugu. Uf, a ze beroa!! Eguzkian beti uda izaten da.

LEIRE: Uf, a ze beroa, hau bero handia!

AITA: Tira, goazen hegazkinera, lehen bait lehen joango gara hemendik. Ui! Non da hegazkina? Desagertu egin da! Urtu egin da! Beroak urtu egin du!!

LEIRE: Oh! Amatxo!!

AITA: Ez du axola. Oinez jaitsiko gara. Tira, mugi. Etxetik urrun gaude. Afalorduan etxean egon behar dugu, bestela amak errieta emango digu. Hemen, Eguzkian, sekulako beroa egiten du, baina berandu etxeratzen bagara afaria hoztu egingo da.

(Ohean etzan eta lurrera eroriko dira. Eszena ilunpean geratuko da. Ohea hasieran bezala

jarriko da. Ama esku batean marrubi-platera eta bestean tenedorearekin ikusiko dugu. Aita begiak itxita dago, zutik, ohearen gainean, hegazkinarena egiten)

AITA: Gora, gora, gero eta gorago, gorago, gorago... Ikusten al duzu, Leire? Etxetik oso oso urrun gaude. Esan agur amari eta amona Kattalini eta ate zaindariari, denei... agur, agur, agur... Hegazkinean goaz. Agur denei...

(Lurrera erori eta esnatu egingo da)

AMA: Laztana?

AITA: Zer?

AMA: Min hartu duzu, laztana?

AITA: *(Zutituz)* Ez.

AMA: Ametsetan ari zinela iruditu zait. Bazirudien bidaia batean zinela, hegazkinez. Ondo al zaude?

AITA: Bai. Zer, marrubiak goxoak?

AMA: Izugarri goxoak. Eskerrik asko, laztana *(Platera eta tenedorea emango dizkio)*

AITA: Besterik nahi duzu?

AMA: Laranja... ura?

AITA: Oraintxe bertan ekarriko dizut *(Ateraz)*.

AMA: Zoragarria zara.

LEIRE: *(Albo batetik sartuz)* Eta nere aita sukaldera joan da amarentzat laranja-ura prestatzera. Berak aspirina bat hartu du. Gaur sekula baino nekatuago dago eta buruko mina sentitzen hasi da... Logela itzuli denean amari laranja-ura eman dio.

AMA: Eskerrik asko, laztana.

LEIRE: Oheratu eta... badakizue zer egin duen? Lo geratu da eta berriz ere ametsetan hasi da. Baina ez du amets egin Kattalinekin, ezta hegazkinean egindako bidaiarekin. Jakin nahi duzue zein izan den bere ametsa? Ba oraintxe ikusiko duzue. *(Ateraz)*

(Beltzera. Argitasuna berriro. Logelan ez dago inor. Leire bere panpinarekin sartuko da)

LEIRE: Aitaxo!... Amatxo!

(Amona Kattalin sartuko da Aitaren gosariarekin)

LEIRE: Ez dago inor. Non daude aitaxo eta amatxo?

AMONA: Amatxo goizean goiz joan da herrira, bere amari bisita egitera.

LEIRE: Amona Joxepari?

AMONA: Bai, amona Joxepari. *(Aitari, kanpoan bada ere)* Antton, hemen duzu gosaria. Eta ez dizut berriro ohera ekarriko, entzun?

(Amonak ohe gainean utziko du gosaria. Logelatik aterako da. Leire geldituko da bakarrik, panpinarekin jolasten. Aita sartuko da, oraindik pijama jantzita, telefonoz hitz egiten).

AITA: Zu al zara? Bai, jauna, bai. Esan nizun ez deitzeko sekula santan hona. Zuk molestatu egiten didazu, jauna, zuregatik denbora alferrik galtzen ari naiz. *(Eseki egiten du)*

LEIRE: Telefonoz ari zara hizketan?

AITA: Hau ez da telefonoa.

LEIRE: Bai, telefonoa da. Amatzok esan dit. Amona Kattalinek esan dit.

AITA: Amatzok eta amona Kattalin oker daude. Amatzok eta amona Kattalinek ez dakite zein den honen izena. Hau gazta da.

LEIRE: Hori gazta al da? Baina, orduan, gazta dela pentsatuko dut.

AITA: Ez, gazta ez delako gazta, ordularia da. Ordularia berriz, izara da. Izara telefonoa. Sabaia lurra da. Lurra sabaia. Pareta atea da eta Aitatzok ari zaio erakusten...

LEIRE: ... Leireri...

AITA: ...hitzen benetako esanahia. Leioa aulkia da, koltxoia leioa; ogia burkoa da, ohea ogia; belarriak hankak dira, hankak besoak; ipurditxoa burua da, burua ipurditxoa; atzamarrak begiak dira eta begiak atzamarrak.

LEIRE: Eta Leire hitz egiten hasiko da bere aitak erakutsi dion bezala. Aulkitik begiratzen dut eta telefonoarekin estaltzen naiz. Atea irekiko dut eta belarriekin ibiliko naiz. Bi begi ditut ibiltzeko eta bi atzamar begiratzeko. Eseri egingo naiz burua sabaian jarrita eta ipurditxoa ogiaren gainean jarrita. Ordularia jan eta gero, burkoan mermelada jarri eta horrela oso postre goxoa izango dut aitatzok zera kontatzen didan bitartean... (***une batez Leirek duda egingo du. Zerbait xuxurlatuko dio aitari belarrira, aholku eske ibiliko balitz bezala***) Ipuin bat?

AITA: Kutxa bat.

LEIRE: Horixe! Aitak kutxa bat kontatzen didan bitartean.

AITA: Oso ondo!!

LEIRE: Aitatzok, kontaidazu kutxa bat.

AITA: Kutxa bat?

LEIRE: Ipuin bat, txotxolo!

AITA: Ez, lanera joateko garaia da eta.

LEIRE: Nora zoaz?

AITA: Komunera, neure burua garbitzera.

(Aitak buelta emango dio oheari. Burukoaren atzealdea ikusiko dugu, eta bertan, Komuna agertzen duen kartela. Aita burukoaren atzean desagertuko da)

LEIRE: Ireki atea.

AITA: Ezin dut, biluzik nago. Garbitzen ari naiz. Orain bizarra egiten ari naiz.

LEIRE: Eta pixa eta kaka ere egingo duzu?

AITA: Garbitzen ari naiz.

LEIRE: Aurpegia garbitzen ari zara, eta besoak, eta sorbalda, eta ipurditxoa, eta hankak...

(Aitaren burua agertzen da, bizarra egiteko aparrez beteta dago)

AITA: Bizarra egiten ari naiz.

LEIRE: Bizarra egiten ari zara bizarra kentzeko aparrarekin. Sartu nahi dut. Ikusi egin nahi dut.

AITA: Ezin nauzu ikusi, orain ez bainago komunean.

LEIRE: Orduan, non zaude?

AITA: Ez dakit, joan nere bila. Agian jangelan egongo naiz, joan nere bila (**Leire abaila bizian abiatuko da jangelara**). Aitatxo lasai dago, baina ez luzaro.

(**Leire itzuliz**)

LEIRE: Zure bila ibili naiz. Ez zaude jangelan.

AITA: Ez duzu ondo bilatu, begiratu mahai azpian.

(**Leire berriro atera eta pixka batera sartuko da, gero eta nekatuago**)

LEIRE: Ez zaude mahai azpian.

AITA: Ba begiratu egongelan (**Leire arrapaladan abiatzen da**). Begiratu ea besaulkian nagoen.

LEIRE: (**Barrutik**) Ez, ez zaude besaulkian.

AITA: Edo koadroen artean ezkutaturik. (**Albo batetik hegan agertzen dira hainbat koadro**)

LEIRE: Koadroen artean ere ez.

AITA: Edo liburuen atzean (**Oraingoan liburuak ageriko dira hegan**) edo leihoan. Aitatxo lasai dago, baina ez luzaro.

(**Leire sartuko da, oso nekatuak**)

LEIRE: Ez zaude besaulkian, ez zaude leihoan, ez zaude koadroen artean ezkutatuta, ez zaude liburuen atzean, ez zaude telebistan, ez zaude egongelan.

AITA: Ba begiratu ea sukaldean nagoen

LEIRE: Oraintxe bilatuko zaitut sukaldean (**korrika abiatzen da**).

AITA: Aitatxo lasai dago, baina ez luzaro.

LEIRE: (**Barrutik**) Ez, ez zaude sukaldean.

AITA: Begiratu ondo sukaldeko mahaiaren azpian.

LEIRE: Ez zaude hor.

AITA: Begiratu ondo armairuan, begiratu ondo lapikoen artean (**Oraingoan sukaldeko tresneria guztia aterako da hegan**). Begiratu ondo labean nagoen, oilaskoarekin batera. (**oilaskoa hegan ageriko da**)

(**Leire erabat akiturik sartuko da, galtza batzuk eskuan**)

LEIRE: Ez zaude labean, ez lapikoen artean, ez armairuan, ez alfonbra azpian, ezta zure galtzetako poltsikoetan ere (**Galtzetako poltsikoetan bilatzen hasten da**)

AITA: Nere galtzetako poltsikoetan musuzapi bat besterik ez dago.

LEIRE: (**Aurkitu egingo du, baina nazkaz utziko dio lurrera erortzen. Ondoren, komuneko aterantz doa**) Leku guztietan bilatu zaitut, baina ez zaude inon. Non ezkutatu zara?

AITA: Hemen nago. (Komunetik ateratzen) Nere bila ibili zaren bitartean, aitatxo dotore jarri da: bizarra egin eta bere burua garbitu du. Eta orain prest dago lanera joateko.

(Amona sartuko da eta logelan dagoen kaosa ikusiko du. Erabat zurbilduko da)

AMONA: Baina... Zer gertatu da hemen? (Zorabioak jota ziplo eroriko da)

(Eszena ilunpean geratuko da. Ohea hasierako moduan geratuko da. Argitasuna. Aita lotan dago, eta amak oraintxe bukatu du laranja-ura)

LEIRE: Nere aita hori dena ametsetan ikusten ari zen bitartean eta ama laranja-ura bukatzen ari zen bitartean, bapatean...

AMA: Ai... ai... Laztana, esnatu... Laztana... badatorrela... Laztana, laztana...

AITA: Eh?... Eh? Bai, tira... Zer? Zer gertatzen da?

AMA: Leire... badatorrela... badatorrela...

AITA: Badator?

AMA: Bai, badatorrela.

AITA: Jainko maitea! A ze urduritasuna!! Eta... Zer egingo dut orain? Non dago nere arropa? Anbulantziari deituko diot? Anbulantzia...!!!

AMA: Baina... Zertan ari zara? Hartu berebilaren giltzak.

AITA: Berebilaren giltzak, bai, berebilaren giltzak. Eta orain, zer?

AMA: Orain eraman nazazu eritetxera, azkar!

AITA: Bai... eritetxera... Goazen eritetxera.

AMA: Ai...! Ez naiz iritsiko!!!

AITA: Bai, maitea, itxaron pixka bat. Tira, mugi!! Goazen, goazen!!!

(Korrika ateratzen dira. Ohearen burukoaren atzetik Leireren burua agertzen da)

LEIRE: Eta horrela jaio nintzen ni gau hartan. Badira zazpi urte. Orain gutxi gurasoek esan didate nebatxoa ekarriko didatela. Oso pozik nago, horrela berarekin jolastuko dut. Dagoeneko aukeratu dut bere izena. Nere nebatxoaren izena izango da... Kattalin!!!

(Beltzera)